


TXIRRITXOLA

9. ZENBAKIA 1994. EKO URTARRILA BAKIOKO EUSKERA BATZORDEA

Urte Berri On



Kultur Etxea

Udal honentzat eraikuntza bat osoa goitik behera kulturako izatea baino askoz egokiagoa da ahalik eta zerbitzurik osoena eta modurik erosoenean eskeintzea.

Eta honetara kulturarako areto batzuk egin dira kultur etxe deitutako honetan: Biblioteka, bideoteka, hitzaldi aretoa, erakus gela, ekintza aretoa, ikas gelak, bulegoak eta gezteen aretoa.

Lehengotan hau zan asmoa baina gero eta kontuan izanik gaur egungo udaletxeak antolaketa desegokia dauala Bakiok batetik eta bestetik zuzeko solairu baten gainean dagoala eta beste eraikuntza barri bat egitea baino merkeago urtengo eutsola herriari kultur etxearen eraikuntza beste solairu baten gehitzea, horixe erabagi eban udal honek.

Eraikuntza baten barruan izateak ez deusku kalterik ekarriko eta ezer izkutuan egin beharrik ez dauenari berez danen argitan egiteak gauzak.

Gurelako udalerrietan, kultur etxeak, ekintza kulturalen benetako gordelekuak dira. Baina kultur etxe bat ez da lokal beharrian baten erantzuna bakarrik,

kultura bultzatzeko tresna bat baino. Kultur etxeetan, talde kulturalen oinarrizko beharrianak betetu eta herriak behar dauzan kultur zerbitzuak eskaintzea dira helburu nagusi.

Askotan ekintza guztiak eta herriko talde eta elkarteak uriko beste lokaletan zabaldua egon behar izaten dira, eta kultur etxeak zentru neuralgiko baten funtzio horretan, herriko ekintzapideei etengabeko laguntasuna eta batasuna emoten deusee.

Zentru honeek lortu behar daben arrakastarik handienetako bat zera da, etxe honetara kultur zaleak bakarrik ez eitezela etorri, edozein gizarte-sail eta adineko lagunak ere hurbildu dagiezala.

1994. urterako, gehien gura dogunagazteentzako ekitaldiak eragin eta gazte-topaketa areto prestatzea da.

Bakion, 1993.eko abenduaren 27an

BAKIOKO UDALA

Kultur Etxea

Aspaldidanik Herri osoa Kultur-Etxearen zain egon da. Hementxe daukagu ba kultur-etxe bat eta Euskera Batzordeak sondeo txiki bat egiteko asmotan, udal eta taldeen eritziak jaso nahi ditu beraren erabilera edo betebeharrekek aztertzekotan.

Galderak:

- 1- Uste duzu lokalen arazoa konponduta, Kultur-etxeak bate dituela bere helburuak?
- 2- Zure ustez zelako beharrianak bete behar ditu Kultur-etxeak gure herrian?
- 3- Zer deritzozu Udaletxea hor kokatzeari?
- 4- Ondo antolatzekeo dinamizadore baten beharrianak ikusten duzu?
- 5- Ze eratako dinamizadorea?
- 6- Dinamizadoreaz gain kultur-komisio bat eratzea ikusten duzu pertsona horri laguntzeko?

Itxas Alde dantza taldea

1- Ez, talde guztien beharrianak ez dituelako betetzen.

2- Kultur-etxeak talde eta elkargo guztientzako gelak euki behar ditu, adibidez liburutegia, bideoteka eta gazteentzako gelak, eta baita ere gazteak ez dirantentzako.

3- Oso txarto iruditzen zaigu . Kultur etxeak bere izenak diñonez, talde kulturalaren beharrianak bete behar ditu lehenengo.

Gero, lekua soberan geratzen bada, udal bulegoekin edo beste gauza batzuekin bete ahal da.

4- Bai, oso garrantzitsua da dinamizadore bat egotea bertan.

5- Arlo horretan esperientzi apur bat eukikoa, eta kultur munduz lotuta dagoen pertsona bat izan behar litzateke, eta baliokoa balitz obeto.

6- Bai, dinamizadoreari laguntzeko. Kultur komisio hau, taldeetako ordezkariekin eta kultur etxeako erabiltzaileekin eratuta egon beharko litzateke gure ustez.


Bakioko Futbol Kirol Taldea

1-Ez, ondo ikusten izango litzateke.

dugu herriko talde kulturalak eta kirol-taldeek Herriak kultur mailan toki bat eukitzea Kultur dituen beharrianak etxean, baina kultur etxe betetzen baditu ez dugu baten helburuak beste gaizki ikusten goiko batzuk izaten dira normalean pisua Udaletxea izatea.

2- Biblioteka bat Martxan jartzeko edo beharko litzateke. Aktua bizia emoteko etxe horri. litateko gaietan txarlarak 5- Patxadetzkoa, kultur arloan aditua.

emateko toki egokia da 6- Pertsona hori bene biltzeko ere balio behar takerako dinamizadorea ak luke. Zinea eta bideo berak eskatuko ak ere beste aukera bat laguntza.



Kultur Etxea

Eskolako Guraso Elkarte

1- Ez. Lokalak talde-
etako jendea biltzeko
dira baina kultur-etxe
batetan herriko jende
guztia ere elkartu
b e h a r k o
litzateke. Zelan?

2- Lehenengo eta
behin motibazioak jen-
dea bere etxeetatik eta
tabernetatik ataratzeko,
Kultur-etxean elkartuz.

Zinea, liburutegi on
bat, ekintzak (era guz-
tietakoak), gazteen txo-
koa, baita ere
helduentzako txokoa.

3- Etxe hori egiten
hasi zirenean Kultur-
etxea zela eta geun-
den. Gero Udaletxeko
artxibo hor izango zela
izan zen zurrumurrua.

Orain Udaletxea izango dela
goiko plantan, ez dakigu nahiko
leku izango badu Udaletxeak
planta bategaz.

4- Bai. Halako zeozer da

behar dana.

5- Arduraduna, ordena man-
tenezkoa, laguna, antolatzailea,
ideosoa, jendearen beharrianak
asmatzen dituen, ez dena
nekatzen, oso langilea..

6- Bai. Talde bakoitzak euki
baher dau pertsona bat gutxie-
nez kontaktatzeko beste talde
eta dinamizadorearekin, laguntza
eskeiniz dinamizadore horri edo-
zein ekintzetan.



Eskolako 8º mailako

ikasleen iritzia

1- Ez. Lokalen arazoa ez dago konponduta, talde
batzuk ez daukatelako tokirik. Dena dela gazteentzat
gela bat ekintzeekin jartzea komeni da.

2- Herri guztirako kultura gehiago, kultura zabaldu
adin guztietarako, laguntza eskeini talde guztiei,
entretenezko, ikasteko eta ondo igarotzeko.


3- Txarto dagoela. Udaletxeak baduelako bere
lekua eta ez du zertan gehiagorik okupatu behar.

Badaude lehenengo beste gauza batzuei leku
eman beharra.

4- Bai. Kultur ekintzak antolatzeko, ordena jartze-
ko eta animatzeko.

5- Dediakzio guztiarekin, kultur arloan dakiena,
ekintza onak prestatzen dituen.


6- Bai.



E gon adi. Lehiaketa izugarria ale
honetatik aurrera

Nekazaritza ekologikoa

Barazkien asoziaketa baten adibidea



Nekazaritza ekologikoa (I)

Nekazaritza ekologikoa kalitate, nekazal ingurugiroaren errespetua eta baserritarren giza kontsiderazioa ulertzeko era erraztenarikoa bat da.

Nekazaritza ekologikoaren helburua kalitate nutritibo eta sensorial gehieneko elokagaiak lortzea da. Horrez gain, ingurugiroa aintzat hartzea, luraren emankortasuna kontserbatzea eta ezberdintasun genetiko bat lortzea errekurtso berriztagarrien bidez, produkto kimikorik erabili gabe (pestizidak, herbizidak eta abono mineral disolbagarriak).

Honela, nekazaritza Ekologikoaren praktikak:

1- Ongarri kimikorik gabe elokagaiak lortzea permititzen du.

2- Nekazaritzaren inguruarekiko eragin negatiboak gutxitzen ditu.

3- Paisai ezberdin eta sano bat itxuratzen du.

Nekazaritza Ekologikoan era-

biltzen diren teknika batzuek hauek dira:


1- Hazkuntzen biratzea: honetarako, baserritarrak barazkien planifikazio bat egin behar du urtero eta ondo jolastu leguminosekin (indabak, habak, iderrak, alfalfa, etabar)

2- Barazkien asoziaketa: batzutan egokia da barazki batzuek euren artean nahastuta jartzea. Honela plaga edo gaixotasunak ebaitzakegu.


3- Abono berdea eta komposta: barazki eta fruituen abonatuak ez da erabiltzen abono kimikorik. Erabiltzen diren abonoak hauek

dira: edozein satsa, algak, errautsa eta zenbait gauza natural gehiago, ingurugiroa errespetatzen dutenak.


4- Gaixotasunen prebentzioa: argi du Nekazaritza Ekologikoa erabiltzen duen baserritarrak hobe dela prebentzioa gaixotasuna landarean dagoenean ezabatzea baino, honek landarearen galtzeak ekar bait lekioko



Hazkuntzen biratzeen adibide bat
1º urtea



Hazkuntzen biratzeen adibide bat
2º urtea



Hazkuntzen biratzeen adibide bat
3º urtea

Txirritxolaren irakurle gazteiei:

(Erkusta txiki hau erantzutea eta Udaletxean itxia eskatzen dizuegu, Euskara Batzordeko partaideak aldizkaritxo hau hobetu nahian gabiltza eta)

Ondo deritzoza euskarazko aldizkari bat egoteari?

Ateratzen den maiztasunez ala sarriago bizi zenake?

Bertako euskera ulergarria dela uste duzu?

Ze eratako artikulak edo notiziak gustatzen zaizkizu gehiago?

Ba al dago zure ustez herriko gairen bat bereziki ikatzea nahi izango zenuenik? Zein edo Zeintzuk?

Dharra: Pertsonalki nahi taldeka beti eukiko duzu leku bat aldizkarian eritziak edo notiziak argitaratzeko. Itxi udaletxean euskera batzordearen izenean. Erkusta hau ere udaletxean itxi

Iritzia

Alfabetatu, Zertarako?

Argi dago, analfabetoa ez izateko, euskaldun osoa izateko eta ez erdia edo laurden bat. Asko dira, gara, erderaz ederto eta sarri egiten dogun euskalzale sutsuak; kontraesanez beterik dagoan herri honetan, etxe euskaldunak, txakur eta katu euskaldunak, ume euskaldunak sarritan, baina nagusiak zero. Ez leidu, ez idatzi, ez berba bere ez gehienetan euskaraz.

Geure konfidantza... guzurre, gure nagikeria osoa daukagu umeengan jarrita, umeek euskaraz ikasi, berba egin, euskara salba beharko dabe. Guraso eta nagusiak lasai, egonean, zertarako larritu? Begiak itxi eta Kitto.

Badago zer ikusi, entzun eta irakurri euskaraz, hor dagoz ETB, irratiak, egunkaria, nobelak, kantak etabar...

Sasoi batean euskaraz leidutea, idaztea, berba egitea, debekatua egoan, eta orain, zertan gabilz?

Ez gaitezen analfabetoak izan

J.J. Agirre
Bakioko AEK kidea

Bakioko 5. Idazlan Lehiaketa

ZAZPIURTETIK HAMARRERA:

1º IZARRAK ETA ILARGIA, ANE ABIORENA

AIPAMENA:

• IZAR GALDUA, IRATI ABIO MURAGARENA

HAMAIIKA URTETIK HAMALAURA

1º NIRE AZKEN HITZA, AIORA AGIRRE MARTINEZENA

AIPAMENAK:

• GOROLDIOAN AURKITUTAKO ERAZTUNA, AINARA MADARIAGA GARCÉS DE LOS FAYOSENSA

• ORDENAGAILUKO GIZONTXOAK: GIZONTXO BAT LANEAN, ANARTZ ORMAZA UGALDERENA

• AINTZINAKO OHITURA IZKUTUA, LIDE MADARIAGA GARCÉS DE LOS FAYOSENSA

• EULI FAMATUA, GOTZONE IRIARTE LOPATEGIRENA

HAMABOST URTETIK HAMAZORTZIRA:

1º HERRI TXIKI BATENGANAKO NOSTALGIA, RAMA SANTOS ABIORENA

HEMERETZI URTETIK AURRERANTZ:

1º JIRAFATXO, PILAR GARCÉS DE LOS FAYOS TOURNANENA

**Euskerazko
klaseetara
apunta
zaitez!!**



**Udaletxean,
urtarrilean
hasiko dira**

Bertsolarien txapelketa

Donostia 93-12-19

Txapelduna:
Andoni Egaña

Bigarrena
Xabier Euskitze

Hirugarrena
Sebastian Lizaso


Laugarrena
Unai Iturriaga

Bostgarrena
Jokin Sorozabal

Seigarrena
Jon Enbeita

Zazpigarrena
Angel Peñagarikano

Zortzigarrena
Haritz Lopategi



Txapeldunari agurra

ZORAMENEZKO EGUN HANDIA
LARRITASUN ETA ATSEGIN
EUSKARA ZAHARRAN SUSTRAIAK ETA
BERTSOARENAK MAITEMIN
MILA ZORION ANDONI HANDI
UNAI, HARITZ, DENOK BERDIN
TXAPEL ZAHARRARI AGUR EGINEZ
AURRERA BERRIA AGERI
SEGI ETA KANTA, KANTA MUTILAK
GIRO HAU GALDU EZ DEDIN

JON LOPATEGI

Parkeko banku batek

ARRATSALDEA ERORIA DA
PIXKAT ITZALTZEN HASIA
ETA ORDUAN NABARITZEN DUT
IKUSKIZJN NAHASIA
NESKA TA MUTIL NIGANA ETORRI
HORREXEK DAUKA GRAZIA
SALTOA EDO JAUZIA
EZ DA GAUZA ITSUSIA (BIS)
NE GAINEAN EGITEN DUTE
MAITASUNEZ GUZTIA
ZE PENA DAUKAT GERTATZEN DENA
ONDO EZIN IKUSIA

SEBASTIAN LIZASO

Lehiaketa Mundiala

Hemendik aurrera TXIRRITXOLEANaukera duzu kultur-lehiaketa baten parte hartzeko.

TXIRRITXOLA bakoitzean hamar galdera doazkizu eta bakoitzak puntu bat balio du. 1994. urtearen bukaeran puntu gehien akumulatuta dituen lehiakideak sari bat jasoko du Olentzeroarekin batera.

Anima zaitetz eta utz itzazu erantzunak Udaletxean, Euskera Batzordearen izenena

Gaia: Bertsolaritza

- 1- EUSKALERRIKO ZEINTZU HERRITAN IZAN DIRA FINAL AURREKO EMANALDIAK?
- 2- FINALERA HELDUTAKO BERTSOLARI BAKOITZA ZEIN HERRITAKO DA?
- 3- NOR IZNA DA FINAL HONETAN ADIN GEHIENEKO BERTSOLARIA?
- 4- ETA NOR GAZTEENA?
- 5- ZENBATERO EGITEN DA BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA?
- 6- NOR IZAN DA ORAIN ARTE EUSKADIKO TXAPELDUNA?
- 7- TELEBISTAKO ZEIN PROGRAMETAN ESKEINTZEN ZAIGU BERTSO-MUNDUA?
- 8- NORTZUEK IZAN DIRA TXAPELDUN NAGUSIAK ORAIN ARTE?
- 10-NORA JOAN DIRA TXAPELAK ORAIN ARTE? ZEIN HERRIALDEETARA? ZENBAT HERRIALDE BAKOITZERA?

Denborapasak

Bila

ezazu

Bizkaiko

7 herri

Bakio
Durango
Lekitio
Ondarroa
Laukartz
Bermeo
Mungia

B	A	K	I	O	D	B	C	F	G
O	E	U	D	R	I	K	L	B	M
D	U	R	A	N	G	O	I	D	P
U	S	I	M	Z	H	O	U	R	N
R	P	Q	M	E	T	E	K	D	G
A	D	B	U	S	O	T	A	P	U
N	B	R	S	T	Z	O	R	R	I
G	L	E	K	E	I	T	I	O	A
O	R	S	H	U	N	P	Z	Z	A
N	P	O	N	D	A	R	R	O	A